



**Mondragon  
Unibertsitatea**



**MONDRAGON  
TEAM  
ACADEMY**

**GRADU AMAIERAKO KREDITUAK**

**GIDA AKADEMIKOA**

**LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA**

**LEINN**

**2024-2025 IKASTURTEA**



Mondragon  
Unibertsitatea

Enpresagintza Fakultatea  
Facultad de Empresariales



MTA  
MONDRAGON  
TEAM  
ACADEMY

## LEINN Gradu Amaierako kredituen Gida

## AURKIBIDEA

1. 4

2. 4

3. 5

3.1. 5

3.2. 6

3.3. 6

4. 7

**4.1. JARRAIPEN AKADEMIKOA**

**8**

**4.2. AZKEN DESKARGUA**

**8**

**4.3. MEMORIA**

**8**

**A) Memoria egiteko jarraibideak: FORMATUA**

**8**

**B) Memoria egiteko jarraibideak: EGITURA**

**9**

5. 10

**5.1. ALDEZ AURREKO BAIMENA**

**10**

**5.2. EPAIMAHAIA ERATZEKO ESKAERA**

**10**

**5.3. DOKUMENTAZIOA IDAZKARITZA AKADEMIKOAN ENTREGATZEA**

**11**

**5.4. LUZAPEN ESKAERA**

**12**

6. 12

**6.1. 13**

7. 13

## **1. SARRERA**

LEINN lidergo ekintzaileko eta berrikuntzako gradu ikasketak amaitu ondoren, Gradu Amaierako Kredituak (aurrerantzean, **GBL**), lortzen dira, eta hau, ezinbesteko baldintza izango da, dagokion titulu ofiziala eskuratzeko.

Lidergo Ekintzaileko eta Berrikuntzako graduatu tituluaren helburu orokorra da, enpresa eta talde ekintzaileen sorkuntza, modu eraginkorrean gidatzeko gaitasuna duten profesionalak prestatzea. Profesional hauek nabarmentzen dira, dauden enpresetan aldaketa eragile gisa duten gaitasunagatik, eta enpresa berriak sortzeko eta garatzeko ahalmena edukitzeagatik. Mundu globalizatu eta eleaniztun batean lan egiteko prest daude. Ezagutzaren sozietatea garatzen lagunduko dute ere, berrikuntza izango baita lehiakortasunaren gakoa.

Gradu Amaierako Proiektuaren helburua lan bat egitea eta aurkeztea da, titulazioan landutako konpetentzien (21 skill profile) ariketa integratzaile gisa (teknikoak zein zeharkakoak). Horrela, ekintzaileak lan mundura eta lanbide-ekintzailetzara hurbiltzen lagunduko da. Gradu amaierako proiektua titulazioaren amaieran garatzen da, zehazki laugarren ikasturtean.

Gradu amaierako kredituak, oro har, banaka egingo dira; hala ere, justifikatutako kasuetan, egin beharreko lanaren garrantziagatik edo/eta proiektu ekintzaile propio baten esparruan eginez gero, taldean egin ahal izango dira. Proiektuak 900 orduko dedikazioa eskatzen du (Gutxigo ala behera 5 hilabete 8 ordu egunean).

Proiektu bakoitzak bi tutoretza mota izango ditu: Pertsonal akademikoa edota jatorrizko laborategiko entrenatzaileak, eta enpresako arduradun bat (enpresa proiektuen kasuan), edo (proiektu ekintzaileen kasuan), laborategi bakoitzeko entrenatzaile taldeak izendatutako kanpo aholkulari bat. Enpresaren arduradunak, bere gain hartzen du, ekintzaileei proiektua behar bezala garatzeko behar diren baliabideak emateko ardura, eta honen erantzukizuna izango da ere, ekintzaileak gidatzea, Gradu Amaierako Kredituen helburuak lortzeko hartu behar diren erabakietan. Bestalde, LEINN graduan eskatutako baldintza akademikoak betetzen diren ardura, titulazioak esleitutako tutoretzarena izango da.

Gida akademiko honen xedea da, **GBL**ak garatzeko modua deskribatzea, egin behar diren tramiteen epeak zehaztea, eta ekintzaileei eta tutore akademikoei orientazioa ematea memoriaren idazketan.

## **2. GAUZATZE EPEAK**

**GBL**ak ikasturteko bigarren seihilekoan hasten dira, otsailetik uztailetik irailera bitartean, betiere 3.1 puntuan aipatutako baldintza akademikoak betetzen badira. Eskakizun horiek kontuan hartuta, eta otsailetik aurrera, **GBL**ak etengabe aktibatzen dira.

Enpresaren, ekintzailearen eta Fakultatearen arteko akordio bidez, Gradu Amaierako Kredituekin, otsaila baino lehen hasteko aukera dago, baina horregatik ez da aldatzen memoriaren aurkezpenaren edo defentsaren amaiera data.

Batzuetan, proiektuaren tamaina, helburuak bete diren ala ez, eta abar direla eta, tutoretza akademikoak eta enpresako arduradunak, ekintzailearekin batera, erabakitzen dute **GBL**-ak ez daudela epearen barruan amaituta. Kasu horietan, luzapena eskatu beharko da. (5.4 atala)

### **3. ALDEZ AURREKO TRAMITEAK**

#### **3.1. MATRIKULA**

Gradu Amaierako Proiektua egin ahal izateko, ezinbestekoa da baldintza akademiko hauek betetzea:

- ✓ 1., 2. eta 3. mailako irakasgai guztiak gainditu izana.
- ✓ 4. mailako abenduko lege eta finantza auditoriak gainditu izana, eta elkartearen likidazio-plana aurkeztu izana.
- ✓ Start up process (20 ECTS) eta 24 h innovation (4 ECTS) gainditu izana

GBLen matrikula egin behar da, Idazkaritza Akademikoak ikasturte bakoitzerako (uztaila edo iraila) ezartzen dituen egunetan.

**GBLen** matrikula gisa ordaindu beharreko zenbatekoa, ikasturtearen hasieran zehazten du MU ENPRESAGINTZAko Kontseilu Errektoreak, eta matrikula egiteko unean aukeratu zen ordainketa modalitatearen arabera fakturatzen da. Ekintzaileak, proiektua, GBLen lehen eskaeraren ondorengo bi urteetatik aurrera defendatzen duen kasuetan, edo ekintzaileak eskaera egiteko baldintza akademikoak betetzen baditu, baina bere garaian ez badu eskaera egin, GBLen kredituen proportzioari dagokion matrikularen prezioa ordaindu beharko du.

Ekintzaile batek, ezinbesteko arrazoiengatik, Koordinazio Akademikoaren iritziz, **GBL**ak garatzeko aukera uzten badu, beste proiektu bat egin ahal izango du hurrengo deialdian. Egoera horretan, gradu amaierako proiektuko kredituei dagokien kostua ordaindu beharko du, eta baita matrikularen kostu finkoaren zati proportzionala ere. Egoera horiek banaka aztertuko dituzte Koordinazio Akademikoak eta talde bakoitzeko entrenatzaileak.

### **3.2. PROIEKTUA AUKERATZEA**

Proiektua bilatzeko prozesua hasi aurretik, laugarren urtearen hasieran, ekintzaileei azalduko zaie proiektuari ekiteko beharrezkoa den alde aurreko informazioa, bai eta proiektua behar bezala gauzatzen lagunduko duten jarraibideak eta orientabideak ere.

Prozesu horretan, ekintzaileek Ikaskuntzako Portfolioa garatuko dute, eta beren ikaskuntza kontratua eguneratuko dute, gradu-amaierako proiektua bilatzeko eta definitzeko tresna gisa. Bi ikaskuntza tresna horiek taldearekin eta entrenatzaileekin partekatuko dira, bilaketa eta definizio prozesu horretan berrelikadura eta euskarria emateko.

Erronka eta garatu beharreko proiektua identifikatu ondoren, **GBL**-en fitxa beteko da (1. eranskina), eta laborategiko entrenatzaile-taldeak baliozkotu beharko du. Behin Gradu Amaierako Proiektua baliozkotuta, MU Enpresagintzako unibertsitate enpresa saila arduratuko da, unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzaren hitzarmena formalizatzeari (beharrezkoa denean, 2. eranskina).

### **3.3. GBLen HASIERA**

Hasiera batean, graduaren amaierako proiektua otsailean hasiko da, 3.1 puntuan aipatutako aurretiko baldintza akademiko guztiak bete ondoren; dena den, badago aurretik hasteko aukera, betiere lantaldearen beraren eta laborategiko entrenatzaileen taldearen baimenarekin. Hala ere, epaimahaian ezin izango da aurkeztu, harik eta eskakizun akademikoak bete arte.

Une horretatik aurrera eta ikasturte osoan zehar, proiektuak etengabe aktibatuko dira eta lankidetzaren jarria egongo da entrenatzaileen artean.

Graduaren amaierako proiektuak 5 hilabeteko iraupena du gutxienez, eta hauek dira aurkeztu ahal izateko deialdiak:

- **Ohiko deialdiak: Otsaila, uztaila eta iraila**
- **Ezohiko deialdiak: Azaroa**

Proiektua hasi aurretik, Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena sinatuta egon beharko da, eta istripu poliza izenpetuta. (beharrezkoa den kasuetan).

**GBL**ak egiteko aukera zehaztu ondoren, honako tramite hauek egin beharko dira: (Prozesu hau, 3. eranskinean zehazten da):

1. Dokumentazioa, MU Enpresagintzan jaso (hitzarmena, aseguruak, etab.).

2. Dokumentazioa, **GBL**ak garatzen diren enpresako Langileen Departamentuan entregatzeu (beharrezkoa bada).
3. **GBL**en hasiera
4. Enpresan jaso, Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko lankidetzeta hitzarmena, sinatua eta zigilatua, eta istripu-poliza, eta laborategian entregatu.
5. Dokumentazioa entregatu, MU Enpresagintzako Unibertsitate-Enpresa harremanen Unitatean
6. Esleitutako tutoreekin komunikazioa izan, **GBL**ak gauzatzen diren bitartean.

#### **4.1. JARRAIPEN AKADEMIKOA**

Fakultateko tutoretzak, dagokion jarraipen akademikoa egiten du, egindako lana gainbegiratzen du, eta amaierako deskargua eta memoria berrikusi eta baliozkotzen ditu, idazkaritza akademikoan entregatzeko.

Deskarguak aurkezteko datak honako hauek izango dira:

- ✓ **AZKEN DESKARGUA (Deialdia: otsaila): 2025eko otsailaren 20**
- ✓ **AZKEN DESKARGUA (Deialdia: uztaila): 2025eko uztailaren 3**
- ✓ **AZKEN DESKARGUA (Deialdia: iraila): 2025eko irailaren 25**
- ✓ **AZKEN DESKARGUA (Luzapena: azaroa) 2025ko azaroaren 13**

Ezinbesteko baldintza da azken deskargua eta memoria goian adierazitako epean aurkeztea, ondoren defendatu ahal izateko.

#### **4.2. AZKEN DESKARGUA**

AZKEN deskargua, **GBL**en amaiera eta bertan planteatutako helburuen lorpena adierazten duen txostena da (4. eranskina).

Txosten honek, aukera ematen die unibertsitateko tutoretzari zein enpresakoari, ekintzailearen lana batera baliozkotzeko, oniritzia emateko, eta defentsarako epaimahaia eratzeko eskaerari ekiteko. Azken deskargua, enpresako eta Fakultateko tutoreek sinatu beharko dute, eta ezarritako egunean entregatu beharko da Idazkaritza Akademikoan (Kontaktua, laborategi bakoitzak jakinaraziko du eta online izan daiteke).

#### **4.3. MEMORIA**

Memoria, Gradu Amaierako Kredituetarako idatzizko agiria, epaimahaiaren aurrean defendatzean ebaluatuko da, dagokion egunean.

##### **A) *Memoria egiteko jarraibideak: FORMATUA***

Memoria, MU Enpresagintza eta MTA-ren Estilo Eskuliburuak ezarritako jarraibideen arabera aurkeztuko da.



50 eta 80 orrialde arteko luzera izango du, eranskinak aparte.

Erabili beharreko formatuari dagokionez, eta eskuliburu honetan jasotakoaren arabera, memoria honela aurkeztuko da:

- Paper zurian edo birziklatuan, DIN A-4 formatuan.
- Bi aldeetatik inprimatua (bi aldeetatik inprimatutako orria), 1,5 lerroko lerroartekoa.
- Ertzak: 3 zm-ko goiko eta beheko marjina, ezkerreko marjina eta eskuinekoa 2,5 zm-koa.
- Letra mota eta tamaina Arial izan behar da, 12 tamainakoa.
- Orrialde guztiek zenbakituta egon behar dute, eta goiburu bat eta orri oin bat izan behar dituzte:
- Goiburuan, ezkerrean, orrialde horretan garatzen ari den memoriaren kapitulua eta MTA-MUko logoa agertu behar dira, goiko eskuinaldean.
- Orri oinak memoriaren izenburua izan behar du ezkerrean, eta orri zenbakia eskuinaldean.

Memoriaren aurretik, azala eta lehen orri estandarra agertuko dira. Bertan, erreferentziako datuak jasoko dira, hala nola izena, eskubidea ematen duen gradu titulua, egilea, tutoreak, etab.

Grafikoetan, eskemetan edo argazkietan kolorearen erabilera funtsezkotzat jotzen diren xehetasunak edo ñabardurak hautemateko ezinbestekoak diren kasuetara mugatu beharko da.

Grafiko, marrazki, eskema eta abarren kasuan, zein grafiko, marrazki edo elementuri dagokion adierazi beharko da, eta memoriaren hasieran aurkibide bat egin beharko da hauek erreferentziatzeko.

B) **Memoria egiteko jarraibideak: EGITURA**

Atal honetan erreferentziako eredu bat eskaintzen da, GFK garatzeko aukeratutako aukerarako memoria egin eta egituratzeko (5. eranskina).

## **PROIEKTUA ENPRESAN:**

- AZALA
- LEHENENGO ORRI ESTANDARRA
- LABURPENA: Memoriaren oinarritzko edukiaren 8-10 lerro artean. Dokumentu honen hasieran agertuko da. Laburpena, laborategi bakoitzeko hizkuntza koofizialetan idaztea baloratuko da, erreferentziatzko atzerriko hizkuntzaren batekin batera (euskara, gaztelania, katalana, ingelesa, frantsesa).
- Atalen AURKIBIDE xehatua, kapitulu eta atalen zenbaketa hamartarrarekin.
- Grafikoen AURKIBIDEA, halakorik balego
- SARRERA. Atal hauek izango ditu:
  - o Aurrekariak
  - o Arazoa edo artearen egoera
  - o Helburuak
  - o Proiektuaren faseak
- GARAPENA, behar diren kapituluetan banatuta, proiektuaren faseen arabera.
- ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN ILDOAK
- BIBLIOGRAFIA, behar bezala erreferentziatuta, memoria egiteko, zer iturritatik atera den informazioa adierazita.

## **5. GRADU AMAIERAKO KREDITUEN BUKAERA ETA EPAIMAHAIAREN ERAKETA**

### **5.1. ALDEZ AURREKO BAIMENA**

Dokumentazioa eta ondorengo defentsa aurkeztu ahal izateko, ekintzaileak enpresan esleitutako tutoretzaren baimena izan beharko du, edo, hala badagokio, proiektuaren mentorearena, hala nola, MUko tutore akademikoarena. Horretarako, azken deskargua sinatuta eduki beharko dute bi tutoretzek (4. eranskina).

Aitzitik, enpresan esleitutako tutoretzak eta MUK ez badute baimentzen dokumentazioa aurkeztea, ekintzaileak erabaki horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahal izango du, eta, behin bakarrik, esleitutako tutoretzaz kanpoko 3 pertsonak osatutako epaimahai bat eratzeko eskatu ahal izango dio Koordinazio Akademikoari. Epaimahai horrek zehaztuko du egindako lana eta idatzitako memoria **GB**Len epaimahaiaren aurrean aurkeztu ahal izango diren.

Epaimahaiaren erabakia, positiboki ebazten bada, ekintzaileak ohiko tramiteak egin ahal izango ditu. Erantzuna ezezkoa bada, memoria garatzen jarraitu beharko du.

Epaimahai honen erabakia, nolanahi ere, apelaezina da.

### **5.2. EPAIMAHAI ERATZEKO ESKAERA**

Epaimahaia, oro har, hiru kidek osatzen dute; horietako bi laborategiko taldeko kideak dira, eta hirugarren kidea kanpokoa izan daiteke, normalean **GBL**ak garatu diren enpresako tutoretza (edo gaian aditua den mentoreren bat). Laborategia ordezkatzeko duen pertsonetako bat epaimahaiko idazkaria izango da beti. Ezin dira Epaimahaiko parte izan, enpresako tutoretzak eta unibertsitatekoak aldi berean, baina batera erabakitzen dute, ekintzaileak egindako lanari dagokion notaren ehunekoari buruz.

### **5.3. DOKUMENTAZIOA IDAZKARITZA AKADEMIKOAN ENTREGATZEA (MUdle)**

Proiektuaren arduradunaren eta Fakultateko tutoretzaren baimena lortu ondoren, eskatutako dokumentazioa Idazkaritza Akademikoan entregatu ahal izango da MUdle plataformaren bitartez (laborategiko arduradunek adierazi ondoren), uneko urteko egutegi akademikoan ezarritako egunean. Dokumentu hauek entregatu behar dira:

- A) AZKEN DESKARGUA:** Enpresako arduradunak eta Fakultateko tutoretzak behar bezala sinatuta. Horrela, egindako lanarekin ados daudela adieraziko dute.
- B) GBLen MEMORIA, paperan edota digitalean (dokumentua pdf-n):** Idazkaritza Akademikoak, originala, Liburutegian entregatuko du, eta laborategiko arduradunari, kopia bat emango dio formatu digitalean, epaimahaikideen artean bana dezan.
- C) ERANSKINAK,** halakorik balego, behar bezala identifikatutako kopia bat paperean edota formatu digitalean (**dokumentua aparte pdf-n**).
- D) KONFIDENTZIALTASUN ESKAERA,** hala badagokio, MU Enpresagintzako MUDLE plataforman jarritako dokumentu pertsonalizatua erabiliz. Konfidentzialtasuna eskatzeko azken epea, GBLen aurkezpena eta defentsa data izango da (6. eranskina)
- E) JUNIOR ENPRESAREN ELKARTEAREN LIKIDAZIO PLANA.** Aldez aurretik, hau, euren team coach-ak eta laborategietako lege-eta finantza-aholkularitzako taldeak, berrikusi eta balioztatu beharko du.
- F) GAINDITUTAKO JUNIOR ENPRESA ELKARTEAREN, AUDITORETZA-TXOSTENA.** Euren Laborategiko lege-eta finantza aholkularitzako taldeak sinatutako txostena aurkeztu beharko da. Egiten ari den ikasturteko abenduko edota uztaileko deialdia.

Gainerako laguntza dokumentuak, fakultatean esleitutako tutoretzari entregatu behar zaizkio, Gradu Amaierako Kredituen aurkezpen eguna baino lehen.

#### **5.4. LUZAPEN ESKAERA**

GBL (Gradu bukaerako Lana) ikaslea matrikulatuta dagoen urteko ohiko (otsaila, uztaila, iraila) edo ezohiko (azaroa) deialdietan aurkeztu beharko da.

Adierazitako deialdietan aurkezten ez badu, luzapen bat eskatu beharko du idatziz, eta titulazioaren Batzorde Akademikoak onartu beharko du luzapen hori.

Luzapen hori lortzeak, aukera ematen dio ikasleari aurkezteko epea hurrengo deialdira arte luzatzeko (ohikoa edo ohiz kanpoko). Ikaslea, dokumentazioa aurkezteko eta GBL-aren defentsarako ezartzen diren datetara egokitu beharko da, eta berriz matrikulatu beharko da GBL-ean.

Hurrengo matrikulek ez dute berekin ekarriko dagozkien tasak ordaintzea, lehenengo matrikulaziotik bi urte igaro direnean izan ezik; kasu horretan, ikasleak, GBLeko kredituen araberako zenbatekoa ordaindu beharko du; LEINNeko Batzorde Akademikoan aztertuko diren salbuespenetan izan ezik.

#### **6. DEFENTSA ETA EBALUAZIOA**

**GBL**en memoria Idazkaritza Akademikoan entregatu ostean, **GBL**en ebaluazio-faseari ekingo zaio, kasu bakoitzean horretarako eraturako epaimahaiak ebaluatu dezan.

Defentsa, aldez aurretik ezarritako egunetan egingo da, eta data horiek behar besteko aurrerapenez jakinaraziko dira. Data, lekua eta epaimahaiko kideak, laborategiko taldeak ezartzen ditu, titulazioaren koordinazio akademikoarekin batera.

Koordinazio akademikoak erabakiko du, zein egun zehatz esleituko diren defentsarako, betiere dagokion ikasturteko egutegi akademikoan zehaztutako aldiaren barruan.

Aurkezpenaren muina, ekintzailearen azalpen teoriko-praktikoa da, multimedia euskarriekin lagunduta; honek, 20 eta 30 minutu arteko denbora izango du, gutxi gorabehera, bere azalpena egiteko, epaimahaiaren aurrean. Hitzaldi horren ondoren, epaimahaiko kideen galderak, gogoetak eta balorazioak egingo dira (20-30 minutu inguru).

Galderen txanda amaitu ondoren, ekintzailea ebaluatzen den aretotik kanpo geratzen da, eta epaimahaiak **GBL**en defentsa kalifikatu eta saioaren akta jasoko du. Azken nota lortzeko, honako hauek baloratuko dira: Aurkeztutako dokumentazioa ( % 20), proiektuaren azalpena eta defentsa ( % 20) eta egindako lana ( % 60) (8. eranskina).

Erabakia hartu ondoren, epaimahaiko idazkariak ekintzaileari jakinaraziko dio **GBL**-etan lortutako nota, eta defentsaren akta – lortutako nota jasotzen duena – Idazkaritza Akademikoan entregatuko du (laborategiko arduradunen bidez).

Epaimahaiak ikusten badu memoriak edo aurkezpenak sakoneko akats larriak dituela edo planteamendu okerra duela, Erraten Fe bat egiteko eskatu ahal izango du, 15 eguneko epean, aurkezten den egunetik aurrera.

### **6.1. GBL-en KALIFIKAZIOEN ERREKLAMAZIOA**

Ebaluatutako kalifikazioarekin ados ez dagoen ekintzaileak, kalifikazioa erreklamatu, eta aurkeztutako lana zein dokumentazioa berrikusteko eskatu ahal izango du. Horretarako, Epaimahaiko idazkariari zuzenduta dagoen bat idazki arrazoitu bat aurkeztu beharko du, eta bertan argi eta garbi azalduko du bere ustez non gertatu den epaimahaiaren balioespen akatsa.

Erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, **GBL**a aurkeztu eta defentsa egin ondorengo hurrengo 24 orduetan.

15 egun naturaleko epea ezarriko da epaimahai berari dei egiteko, ebaluazio saioan erabaki dezan, beste kalifikazio bat proposatzen duen, edo aurrekoa berresten duen. Epaimahaiko idazkariak Idazkaritza Akademikoari jakinaraziko dio **GBL**en behin betiko kalifikazioa. Epaimahaiaren **GBL**en gaineko erabaki berri horren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

### **7. BERRIKUNTZA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA**

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bermatze aldera, MTA-MUK hainbat ebaluazio eta hobekuntza mekanismo ditu ezarrita **GBL**ei dagokienez. Hauek, helburuen betetze maila neurtzera bideratuta daude.

Mekanismo horien artean, ekintzaileen, enpresako arduradunaren eta fakultatean esleitutako tutoretzaren balorazio kualitatiboak aipa ditzakegu, bai eta **GBL**en inguruko ekintzaileen asebetetze inkestak ere, (9. eranskina).

Aitor Lizartza Martín

[alizarza@mondragon.edu](mailto:alizarza@mondragon.edu)

LEINN Graduaren arduraduna

Mondragon Team Academy

Mondragon Unibertsitatea

# 1.ERANSKINA

---

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTU ESKAERA

2024-2025



Mondragon  
Unibertsitatea

Facultad de  
Empresariales



MONDRAGON  
TEAM  
ACADEMY

## KARRERA AMAIERAKO PROIEKTU ESKAERA / SOLICITUD DE PRO

### Enpresaren Datuak / Datos de la empresa

Enpresaren Izena <b>Razón Social</b>		NIF CIF	
Helbidea <b>Dirección</b>		Langile Kopurua <b>Nº Empleados</b>	
Probintzia <b>Provincia</b>		Posta Codea <b>Código postal</b>	
Telefonoa <b>Teléfono</b>		Mobila <b>Móvil</b>	
Jarduera Ekonomikoa <b>Actividad Económica</b>			
Zuzendaria <b>Director</b>			
E-mail / Telefonoa <b>E-mail / Teléfono</b>	/		
Pertsonal Arduraduna <b>Responsable de personal</b>			
E-mail / Telefonoa <b>E-mail / Teléfono</b>	/		

Proiektuaren Datuak / Datos del proyecto-  
práctica

Proiektuaren Arduraduna			
Kargua / <b>Cargo</b>			
E-mail / Teléfono			
Proiektu/praktikaren hasiera data <b>Fecha inicio del proyecto/práctica</b>	00/00/0000	Proiektuaren amaiera <b>Fecha final del proyecto</b>	
Ordu / egunean <b>Horas / día</b>		Hileko Poltsa laguntza <b>Bolsa de ayuda mensual</b>	

	Hizk
--	------

Euskara

Castellano

English

Français



**Describapena - Kokapena / Descripción -  
Enmarque**

Empty rectangular box for description.

**H  
e  
l  
b  
u  
r  
u  
a  
/  
O  
b  
j  
e  
t  
i  
v  
o**

Empty rectangular box for description.

**F  
a**

s  
e  
a  
k  
/  
F  
a  
s  
e  
s

**Emaitzak/**

Oharrak  
**Observaciones**

**Elkartearen likidazio plana (esteka)**

**Facultateak betetzeko / A rellenar por la facultad**

Onespena		Praktikak / Práctica	Pro
Ikaslea			
E-mail eta Telefonoa			
Tutorea			
E-mail			
<b>Epeldia / Periodo:</b>	<b>Desde:</b>	00/01/1900	<b>Hasta:</b>

Datuak biltzean informazio eskubidea arautzen duen Datu Pertsonalek Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, honako hau jakinarazten da: Betetako Eskaera inpresoan agertzen diren datu pertsonalak fitxategi automatizatuetan sartuta daude, eta horren helburua ikaslearen eta ikastetxearen arteko Inskripzioa eratzea da, aipaturiko Inskripzioaren terminoetan. Datu horiek prozedura administratiboak garatzeko behar direnean eta ezarritako terminoetan baino ez dira erabiliko. Fitxategi horien erantzulea kooperatiba bera da eta, horri dagokionez, hala nahi baduzu, aipatu Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta oposizio eskubideak balia ditzakezu, horretarako Idazkaritza Akademikora jo behar duzularik, NAN edo nortasuna egiaztatzeke beste agiri bat aurkeztuta.

En cumplimiento del artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal por el que se regula el derecho de información en la recogida de los datos, se advierte de los siguientes extremos: Los datos de carácter personal, que pudieran constar en el impreso rellenado, están incorporados en ficheros automatizados cuya finalidad es la de formalizar la Inscripción entre estudiante y centro educativo, en los términos de dicha inscripción. Estos datos, únicamente se utilizarán en los términos previstos en los procedimientos administrativos que sean necesarios para su realización. El responsable de estos ficheros es la propia cooperativa ante la cual, si usted lo desea, puede ejercitar los derechos, de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos en dicha Ley, dirigiéndose para ello a Secretaría Académica donde deberá presentar su DNI o documento acreditativo.

Sucursal	
----------	--

## **2. ERANSKINA**

---

**CONVENIO COLABORACIÓN UNIVERSIDAD-EMPRESA  
UNIBERTSITATE-ENPRESA LANKIDETZA HITZARMENA**

# HEZKUNTZAKO LANKIDETZA HITZARMENA

PRAKTIKA AKADEMIKO KURRIKULARRAK 2023/2024

Batetik, Lidergo, Elintzailtza eta Berrikuntza graduak arduraduna, **Aitor Lizartza** eta bestetik, **Izen-abizenak, Enpresaren izena** enpresako ordezkari bezala, euren karguen arabera jokatzeko eta ordezkatzeko dituzten entitateek emandako ahalmenak erabiliz, guztiz bat datoz hurrengoan: Unibertsitateko ikasleen formakuntza praktikoa oso baliagarria dela uste dute, bai ikasleen irakaskuntzaren kalitatearen arduraduna den unibertsitaterako, bai gizartearentzat orokorrean; gizarteak izango baita unibertsitateko tituludunen prestaketa profesional bikainaren azken onuraduna.

Honegatik, ados jartzen dira izenpetzeko HEZKUNTZAKO LANKIDETZA HITZARMEN hau, **kanpoko praktika akademiko kurrikularrak** garatu ahal izateko, **UZTAILAREN 11ko 592/2014 Errege Dekretuaren** arabera. Hau garatuko da hurrengo jarraiturik:

## 1. artikulua arabera: Objektua (UZTAILAREN 11ko 592/2014 Errege Dekretua)

- Kanpoko praktika akademikoak, unibertsitateak gainbegiraturik egongo direnak, unibertsitateko ikasleek egiten duten jarduerak hezitzailea da. Praktika hauen bidez ikasleek aukera izango dute formakuntza akademikoan ikasitakoa aplikatzeko eta euren ezagutzak osatzeko. Praktika hauekin lortu nahi da ikasleek jarduerak profesionalerako behar izango dituzten konpetentziak eskuratzeko; horrela, ikasleen enplegarritasuna erraztuko da eta bestalde euren ekintzailtasun ahalmena indartuko da.*
- Kanpoko praktika akademikoaren izaera hezitzailea kontuan harturik, honek ez du ekarriko inolako ere, lan harreman bateko betebeharrak, eta hauen edukia, ez du ekarriko lanpostuen berezkoa den lan-prestazioaren ordezkapena.*
- Era berean, ikaslea, ikasketak bukatutakoan, entitate kolaboratzailearen plantilan sartuko balitz, praktika denbora ez da konputatuko antzintasun efektuetara eta praktikak eginda izateak ez du esan nahi proba-denboraldia eginda dagoela. Salbuespen bezala hartuko da, dagokion hitzarmen kolektibo aplikagarria zerbait desberdina espresuki jasota egongo balitz.*

## 3. artikulua arabera: Helburuak

*Kanpoko praktika akademikoaren burutzapenarekin hurrengo helburuak lor daitezke:*

- Ikaslearen formakuntza integralari lagundu, honen ikasketa teoriko eta praktikoa osatuz.*
- Ikaslearen errealitate profesionalera egokitua egongo den lanaren metodologiaren ezagutza erraztu, eskuratutako ezagutzak kontrastatu eta aplikatu.*
- Konpetentzia teknikoaren, metodologikoaren, pertsonalen eta parte-hartzaileen garapena erraztu.*
- Esperientzia praktikoa lortu. Honen bidez, ikaslearen sarrera lan-merkatuan erraztu eta bere etorkizuneko enplegarritasuna hobetu nahi da.*
- Berrikuntza, sormena eta ekintzailtasun baloreak sustatu.*

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- Formakuntza programetan parte hartzen duten pertsonen Gizarte-Segurantzak.

#### 1. Artikulua. Langileen asimilazioa besteren kontura.

- Hurrengo kasuak, Gizarte Segurantzako erregimen Orokorreko besteren konturako langile bezala asimilatuta geratzen dira: Erakunde publikoak edo pribatuak formakuntza programetan parte hartzen dutenak, programa hauek lotuta baldin badaude unibertsitate-ikasketa edo Lanbide Heziketarekin. Honetaz gain, ezin dute bakarrik eskola izaera izan; eduki behar dituzte ere, praktika hezitzaileak enpresatan, erakundetan edo entitatetan eta afektatuek ordain ekonomikoa jaso behar dute euren praktikengatik. Berdin da nola jasotzen den, kontzeptua edo forma. Dena den, programa hauetan sartuta egoteak ezin du ekarri dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean altan egoteak suposatzen duen lan harremana. Urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretua.

Ordaindutako praktika akademikoak egiten dituzten ikasleei dagokienez enpresaren gain geratzen da Gizarte Segurantzaren alta eskatzea, indarrean dagoen legearen arabera.

Gainera, enpresa behartuta dago, dagokion Erantzukizun Zibileko aseguruak, edota honen osagarri diren beste aseguru edo polizak izatea, ikaslea bertan dagoen bitartean.

Hauekin batera, ikaslea MU Enpresagintzak espreski sinatutako -111407000436- Poliza zenbakia duen aseguruarekin babestuta egongo da. Honen estaldurak honako hauek dira:

- Istripuz hildakoa 30.000 €
- Istripuz sortutako balioezintasun iraunkorra 60.000 €
- Erabateko ezintasun iraunkorra 60.000 €
- Mediku LAGUNTZA MUGAGABEA

**BIGARRENA:** Hitzarmen honen helburua erraztea da, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko ikasleen kanpoko praktika akademiko kurrikularrak, enpresatan eta erakundetan.

**HIRUGARRENA:** Ikasle-Enpresa/Erakundea harremanak suposatzen duen konpromisoa, bakarrik hitzarmen honetan agertzen dena izango da. Ez da inoiz lan harremana sortuko.

**LAUGARRENA.** Hitzarmen honen 1. eranskinean, praktiken hasiera eta bukaera datak, ordutegia, garapenaren lekua eta euren eduki zehatza ezartzen dira.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen honen koordinazioa eta gainbegirada, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Fakultateko Unibertsitate- Enpresaren harreman departamentuak egingo du.

**SEIGARRENA.-**Praktikak jarraitzeko, Enpresak ikasle bakoitzaren 1. Eranskinean agertuko den tutore arduraduna izendatuko du. Honek, Enpresa harremanak izango ditu ikaslearekin. Eranskin honetan agertuko dira ere, ikaslearen Tutore Akademikoa eta Fakultateko Unibertsitate-enpresaren harreman departamentua

**ZAZPIGARRENA.-**Fakultateak Tutore Akademiko bat izendatuko du. Hau, ikaslearen praktiken garapen egokiaren arduraduna izango da. Tutore akademikoa, lehen esan bezala, ikasle bakoitzaren 1. eranskinean agertuko da. Tutore honek, harremanak izango ditu ikaslearekin, Enpresa/Erakundearen tutorearekin eta Fakultateko Unibertsitate-Enpresaren harreman departamentuarekin.

11. artikulua araberako: Entitate kolaboratzailearen eskubideak eta betebeharrak.(UZTAILAREN 11ko 592/2014 Errege Dekretua)

**1. Entitate kolaboratzailearen tutoreak hurrengo eskubideak izango ditu:**

- a) Unibertsitateak, bere jarduera kolaboratzailea errokonozitu beharko du, hezkuntzako lankidetzaren hitzarmenean aurreikusitako terminoetan.*
- b) Informazioa jaso beharko du, kanpoko praktikak erregulatzen dituen araudiari buruz eta baita proiektu hezitzaileari eta honen garapen baldintzei buruz ere.*
- c) Unibertsitatearen informazioa lortzeko eta honen laguntza jasotzeko eskubidea dauka, bere eginkizunak ongi betetzeko.*
- d) Unibertsitateak ezarri ditzakeen beste hainbat kontsiderazio espezifikokoak.*

**ZORTZIGARRENA.-** Praktikak egiten dagoen ikasleak, Enpresak duen funtzionamendua jarraitu beharko du.Hau bateragarria izan behar da hemen ezarritako araudiarekin. Ikasleak, txosten bat egin beharko du bere Enpresa/Erakundeko esperientzia baloratzeke.

